



Irene Ezkurra - Olatz Pujana - Olaia Lekunberri
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Fernando Morillo	3
Sarrera	4
<i>Pasio krimena</i>	
• Kokapena	5
• Gaia	5
• Argumentua	5
• Istorioa (gertaera nagusiak)	6
• Pertsonaiak	8
• Egituraketa	9
• Baliabideak	9
• Iritzia	11
Bibliografia eta webgrafia	12

Fernando Morillo

Fernando Morillo 1974an Azpeitian (Gipuzkoa) jaiotako euskal idazlea da.

Fisika eta Filosofia ikasketak egin zituen, baina gaztetatik literaturaren bidetara ekin zion. Gazte literatura landu du gehienbat eta hainbat sari irabazi ditu genero horretan. Bere eleberriak oso erabiliak dira ikastetxeetako irakurgai moduan.



Saiakera ere landu du. 2011. urtean Gaumin argitaletxea sortu zuen, batik bat haur eta gazte literatura bultzatzeko asmoz. Ikastetxeak eta euskaltegiak bisitatu eta irakurleekin topaketak gogoko dituen idazlea ere bada.

Istorioak oso gogoko ditu. Txikitatik, harrapatzen zituen istorio guztiak irensten zituen. Abentura, misterioa, jakin-nahia: motxilan horrelakoak zeramatzala hazi zen.

Ia berrogei liburu argitaratu ditu hamar urte pasatxotan: gazte literatura, thriller zientifikoak, dibulgazioa, biografiak... Euskal irakurleei liburu adiktiboak eskaintzeko ahaleginean dihardu azken urteotan. Horietatik gazte literatura landu du batez ere: *Sexu egunsentiak*, *Bihotz nahasiak*, *Dorretxe zaharreko misterioa*...

1999. urtean, Donostia Hiria irabazi zuen *Gudaoste ametsak* ipuinarekin. Handik aurrera, beste sari zorabigarri batzuk ere etorri zitzaizkion. Besteak beste: Beasaineko Igartza Literatur beka (*Ortzadarra sutan* obra jaio zen hari esker), CAF-Elhuyar Dibulgazio-lehiaketan pare bat sari, Gabriel Aresti Bilboko sarian ere beste pare bat sari.

Sarrera

Pasio krimena Fernando Morillok idatzitako eleberria da, 2013an argitaratu zen Irunen, Gaumin argitaletxearen eskutik. Neska gazte baten hilketaren inguruan gertatzen diren maitasun gorabeherak kontatzen dizkigu, zientziaren eta filosofiaren aipamena eta elementuez apaindurik, idazlearen gai hauekiko zaletasuna beste behin ere erakutsiz.

Istorioan bi pertsonai nagusi agertzen dira Xoel eta June, baina beste pertsonaia asko agertzen dira liburuan zehar, gero garrantzia handia hartuko dutenak kontakizunean. Obra ez dago toki jakin batean zentratuta, eta leku bat baino gehiagotan kontatzen dira liburuko pasarteak.

3. pertsonan dago idatzita kontaketa hau, narratzaile orojakile batek kontatua, hau da, narratzaileak gertatzen den guztia daki: pertsonaien sentimenduak, gertaeren arazoak, baita gerora zer gertatuko den ere.

Edizio honek 205 orrialde ditu eta hiru zatitan dago banatuta. Lehenak 12 kapitulu ditu, bigarren zatiak 30 kapitulu eta azkena 14 kapitulutan banatuta dago.

Liburua irakurterraza da, nahiz eta esaldi bakoitzaren, hitz bakoitzaren ostean, hausnarketa sakon bat gordeta egon; horregatik, denbora dezente hartzen du nobela amaitzeak.

PASIO KRIMENA

Kokapena

Istorio hau gaur egunean dago kokatuta. Kontakizunak zer iraupen duen zehatz ez badakigu ere, pare bat asteko tartea dela ondoriozta dezakegu.

Istoria ez da toki jakin batean gertatzen, leku bat baino gehiagotan dihardute pertsonaiek: Hondarribia, Irun-Ficoba, Donostia eta Hendaia. Gertaera nagusienetako batzuk Juneren etxean eta Arkitektura Fakultatean gertatzen dira.

Gainera, esan daiteke “guztiz errealak” direla eleberri honetako pertsonaiak. Azken finean, gutako edonori bizitzan gerta dakizkigukeen arazoak dituzte eta horiei buelta ematen ahaleginduko dira. Horrela ba, bizitzak jartzen dizkien bidegurutzeen aurrean zirt edo zart egin beharrean gertatuko da gazte talde hau.

Gaia

Alde batetik krimena da nobelaren gai nagusia baina gero maitasuna eta pasioarekin nahasten da. Hilketaz eta krimenez betetako istorioa izan arren, ia kapitulu guztietan ageri da maitasunezko kontaketa bat. Horra hor liburuaren titulua, *Pasio krimena*, gaiarekin guztiz bat datorrena.

Argumentua

Xoel filosofo gazteak eta June ingeniariak maitasun istorio pasional bezain suntsigarria bizi ondoren, kontaktua etetea erabaki zuten. Orain, Juneren familia obsesiboak heriotza mehatxuak jaso ditu, eta neskak laguntza eskatzen dio. Xoel Ainitzerekin azaltzen zaio, hura ere maitale ohia eta fisikari berezi samarra dena.

Neska baten gorpu birrindua agertzen den unean, Juneren aita desagertu egiten da. Susmagarri bat bestearen atzetik, hainbat pertsonairen atzetik joan ostean Sebastianen bila joatea da haien helburua baina azkenean Udazkenek Sebastian eta Txiki hil ondoren aitortu egiten du bera dela hilketa guztien erruduna. Azkenean buruko arazoak zaintzen dituzten ospitale baten amaitzen du, hilketen errua hilda dagoen Sebastiani leporatuz.

Istorioa (gertaera nagusiak)

1. Zenonek Xoel jo egingo du, ez zuelako nahi bere alabarengana hurbiltzea, eta jipoitu ondoren desagertu egingo da arrastorik utzi gabe. Zenonek alde egingo du arazo larri batean sartu delako, eta orduan bere alaba Junek, kezkatuta, Xoeli deitu egingo dio laguntza eske.
2. Goiz horretan bertan, Arkitektura Fakultatean Nora izeneko neska gazte bat hil egingo dute, eta Zenon desagertu egingo da, bera susmagari nagusi bihurtuta.
3. Sebastianek Jabiri deitu zion, diruz betetako maleta berde bat aurkitu behar zuelako.
4. Xoel, Ainitzerekin batera Ficobara abiatuko da Junerekin elkartzeko. Junek Xoeli gertatutakoaren informazio guztia azalduko dio, mehatxuarena barne. Orduan, hirurak batera ikertzen hasiko dira..
5. Jabi Iruneko lagun batekin, Txiki izenekoa, elkatuko da eta Zenonen ikerketan laguntzeko eskatuko dio.
6. Xoel Juneren bikotekide ohiarekin, Rafarekin, elkartuko da hitz egiteko, eta Rafak Fakultatera joateko gomendatuko dio Sebastianekin hitz egiteko. Bitartean, Ainitze Juneren nebarekin, Arnaurekin elkartuko da.
7. Xoel Sebastianekin hitz egin ondoren, Zenonekin geratuko da taberna batean, gertatutako iskanbila guztiaz hitz egiteko eta arazoari irtenbide bat bilatzeko. Sebastianek Jabiren deia jasoko du Xoel joan ondoren eta Jabik Udazken baitu duela esango dio.
8. Zenonek Xoeli esango dio, Arnau susmagarria dela badakielako non dagoen maleta berdea, eta Xoel ziztu bizian Arnauren etxera joango da Ainitzeren bila.
9. Eguardi aldera, Junek dei misteriotsu bat jasoko du, bere alaba Udazken baitu zutela esanez eta bere aitak lapurtutako maleta berdea itzultzea eskatuko dio.
10. Udazkenek ateratako indarrarekin soka askatzea lortuko du, eta Jabiren laguntzarekin batera ihes egingo du.
11. Xoel Arnauren etxerako bidaian Junek deituko dio eta Udazken bahitu zutela esanez, eta Xoelek Juneri laster joango zirela esan zion. Hitz egiten amaitu zutenean, lasterka Arnauren etxerantz abiatuko da eta Ainitzerekin elkartu da. Arnauk Nora ez zuela hil eta maleta berdea berak ez zuela lapurtu esango dio.

12. Txikik Sebastiani deituko dio, Udazken ihes egin zuela esanez. Planarekin jarraitzeko Arnau baitzea erabaki zuten.
13. Xoel eta Arnau Junerengana joan ziren Ficobara eta Ainitze Fakultatera hurbildu zen, informazioa lortzeko helburuarekin. Ficoban Junerekin daudenean, bat-batean Udazken agertuko da odolez betea eta Txikik Sebastiani deituko dio Jabi hil zutela esateko.
14. Ainitze Fakultatera iritsi zenean eta Sebastianen alboko gelara sartu zen beraren elkarrizketa entzuteko. Nahi zuena entzun zuenean, Ficobara abiatu zen, baina Fakultatetik aterako denean Txiki konturatu egingo da Juneren laguna dela eta bahitu egingo du. Geroxeago, Arnau egoera konpondu nahian Fakultatera abiatuko da, Sebastianekin hitz egiteko, baina Fakultatera heltzerakoan Txikik Arnau baitu zuen.
15. Ainitze Xoelekin hitz egiten zegoen bitartean bahitu zuten eta Juneri mezu bat heldu zitzaion, Arnau baitu zutela esanez.
16. Junek eta Xoelek plan bat egingo dute Zenonek arretea deitzeko. Ekaitza hasi eta minutu gutxira Zenonek Xoeli deitu zion eta Xoelek Ficobara joateko esan zion. Guztiak Ficoban zeudenean, Sebastiani mezu bat bidali zioten maleta berdea zeukatela esanez eta horren truke Arnau eta Ainitze eman behar zietela esanez. Orduan, Sebastian eta Txiki Arnau eta Ainitzerekin Ficobarantz abiatuko dira.
17. Sebastian Ficobara heltzean trukaketa hasi zen, maleta berdea ematerakoan Arnau eta Ainitze ake utzi zituzten baina ez zekiten matela utzik zegoenik. Gertatutako trikimailuz konturatzean, eskopeta batekin haien kontra tiroka hasi eta denak harrapatu egin zituen.. Guztiak gela batera eraman zituen, baina Udazken falta zen bertan.
18. Bat-batean Udazten agertu zen eta Sebastian eta Txiki hil zituen. Orduan Udazkenek aitortu egin zuen berak Nora eta Jabi hil egin zituela, baina bere aita salbatzarren.
19. Azkenean poliziari Zenon errugabea zela azaldu zieten eta Sebastianek Nora hil zuela esan zion. Udazkenek egin zuena ordaintzeko soro etxe batera sartu zuten bi urterako eta Xoel eta June bakoitza bere aldetik bidea jarraitu zuten.

Pertsonaiak

Pasio krimena liburuan, pertsonaiak garrantzi handikoak dira istorioaren garapenerako. Hona hemen esanguratsuenak edo aipamen berezia merezi duten pertsonaiak:

Xoel. Pertsonaia nagusietako bat dugu. Ile kizkur luzea du eta larruzko txanklak, kotoizko prakak eta sudadera grisa darama normalean. Xoel eternoa eta hondogabea da. Filosofoa da.

Ainitze. Pertsonaia nagusietako bat dugu. Fisikari teorikoa da. Gona bakeroa, bota kanperoak eta jertse zabala darama normalean. Ile hori argia, oso zurbila, argaltxo eta ume-aurpegi lotsati eta bihurriduna.

June Bergara. Pertsonaia nagusietako bat dugu. Bi neba-ahizpa ditu, Udazken eta Arnau, eta bere aita Zenon da. Ingeniaria eta esperimentalista da, eta “Atmosfera basatia” izeneko bere erakustaldian lan egiten zuen. Modelo bat bezain liraina eta altua, begi eta ile beltzak. Amerikanaz jantzen zen askotan, katuska gorri batzuez. Tximistak eta ekaitzak sortzen dituen neska. Lurrikarak eta kaosa. Matematika ikasten hasi zen, fraktalek ingeniartzara eramanean zuen, ingeniartzak muturreko klima ikertzera. Itsasoaren eta atmosferaren alderdi basatienetara.

Zenon. Pertsonaia nagusietako bat dugu. Hiru seme-alaba ditu, Arnau, June eta Udazken. Mutil burusoia eta arkitekto-maniakoa da. Arkitektura Fakultatean lan egiten zuen. Sabastianen kidea zen eta batzuetan berarekin ehizara joaten zen. Noraren mutil laguna zen.

Udazken. Pertsonaia nagusietako bat dugu. Bi neba-ahizpa ditu, June eta Arnau, eta bere aita Zenon da. Dantzak eromeneraino obsesionaturik. Beti zeramatzan tirantedun nikiak eta malla estuak, nonahi eta noiznahi dantza egiteko prest. Psikologia ikasten zuen, baina haren bizitza dantza egitea zen. Dantza eta dantza. Dantza klasikoa, garaikidea, antzezpenetan edo kalean. Guztia ulertzen zuen dantza gisa.

Arnau. Pertsonaia nagusietako bat. Bi arreba ditu, June eta Udazken, eta bere aita Zenon da. Begiko makarra baino gutxiago ikusi nahi zuen aita, urteak ziren independizatu zela eta bere zortzikoan zebilela, biolontxelo, klarineta, txalaparta eta teklatuaren artean. Hogei urte inguruko mutila da, ile gorri motz-motza eta begirada lotsatia du.

Sebastian. Pertsonaia nagusietako bat dugu. Arkitektoa Fakultatean lan egiten zuen. Zenonen kidea zen eta batzuetan berarekin ehizara joaten zen. *The Walking Dead* zombi-serieko Gobernatzailearen antza dauka.

Baina horiez gain, badira pertsonaia gehiago ere: hona hemen gainerakoak:

- Nora Leyba: Udazkenen laguna eta Zenonen neska laguna.
- Jabi: Zenonen laguna. Gizon gazte bat da. Sorbalda zabalak, begi estu eta arretatsuak, eta masailezur kementsuak ditu.
- Rafa: Juneren mutil lagun ohia eta abokatu surflaria.
- Erika: Rafaren arreba. Hemezortzi urteko neska xarmagarria eta sentibera.
- Txiki: Jabiren laguna, buru luze-luzekoa eta alemaniar ardi-txakurra bezain noblea lagunekin.

Egituraketa

Liburuak hurrunkera kronologikoari eusten dionez gero, narrazioa lineala da. Hala ere, noizbehinka iraganera jotzen du; beraz, esan dezakegu, narrazioaren haria lineala den arren, iraganera saltoak edo *flashback*-ak aurki ditzakegula tarteka.

Bestalde, aipatu beharra dago liburua 3 kapitulu nagusitan banaturik dagoela, 208 orrialdetan, zuri-beltzeko irudiekin. Narratzaileak hirugarren pertsonan kontatzen du istorioa, eta orainaldian narratzen dira gertaerak.

Baliabideak

Eleberri honetan baliabide ugari erabili ditu idazleak, pertsonaien arazo eta kezkek irakurleari helarazi eta hau hausnarketara bultzatzea bilatu du. Espresaera aldetik, narrazioa da nagusi, baina sentimenduen deskribapenek eta elkarrizketek ere garrantzia eta indar handia dute obra honetan. Gainera, sentimenduen deskribapenak ez ezik, pertsonaien deskribapenak ere ugariak dira.

Hizkuntza eta idazkera aldetik, konplikaziorik gabeko idazkera du. Ulertzeko liburu erraza da, berdin irakurri dezake hamalau, berrogei edo hirurogei urtetako pertsona batek. Ez da adin bakarrera mugatzen den liburua.

Elkarrizketak

- Zergatik ez diozu deitzen? –galdetu zion Xoelek.
- Sebastiani? Ezin dut. Oraingoz.
- Nahiago duzu seme-alabak arriskuan jartzea?
- Ez da hain erraza.
- Esadazu garbi, Zenon: zer duzu buruan? Zer uste duzu orain? (95)

Konparazioak

Normalean, “bezala”, “bezain”, “antzera” edota “iruditu” esan nahi duten aditzak erabiltzen dira. Bi elementu konparatzeko erabiltzen da, itxura edo antzekoa dutelako.

- «...haizepean hegan zebiltzan xaboi-burbuilak balira bezala.» (10)
- «Burusoila urruntzen hasi zen, hiena baten moduko irribarraz. » (11)
- «Gizonak urruntzen jarraitu zuen, ezer gertatu ez balitz bezala» (11)
- «Haren aitak artzainek otsoa bezala maite nau.» (13)
- «...mamizko ogi labetik atera berria bezalakoa.» (13)
- «...fosforo guztia pizten zaion pospolo erraldoi baten modura.» (15)
- «...beste aldean tximeleta jaioberri bat balego bezala...» (49)
- «Beso batez heltzen zion oholari, gerri parean, maite balu bezala.» (64)

Metaforak

- «—Hegan! Zentzu bat baino gehiagotan. Airea zeharkatzen duten amaraun ikutezinetan zintzilikatzen zen, flotatzen.» (50)
- «—Niri esan behar? Ez naiz babo antzera ibiliko. Zulo hutsetan bakarrik sartuko dut muturra.» (114)
- «Neska interesgarria zen. Bihotza sasi artean triskaturik ez balu.. » (147)

«Mutilaren aurpegiak haragiz eginiko amorru-sinfonia bat eratu zuen itsumustuan.»
(101)

Atsotitzak edo esaera zaharrak

Herri erabilerako esaldi zuzen, zehatz eta xehea da, ahoz aho transmititua eta tradizio luzekoa eta gehienetan irakaspén morala eta praktikoa.

«Astoak mandoari belarri luze.» (50)

«Hara joan naiteke, begiak eta belarriak luze-luze ibili.» (114)

Noizbehinka beste figura mota batzuk ere agertzen dira. Onomatopeiak erabiltzen ditu baina oso gutxitan eta tarteka esaten duenari indar handiagoa emateko letrak errepikatzen ditu. Esanahien eta soinuen arteko lotura zuzena erakusteko. Hona hemen adibide batzuk:

«Orduan etorri zen argizko eta soinuazko leherketa eskerga. BURRUNNNNN!» (154)

«Tanta kontaezinek autoaren sabaiaren kontra mailukatzen zuten, kinki-kanka, kinki-kanka...» (161)

Iritzia

Intrigaz beteriko istorioa da hau, hasiera hasieratik krimen bat argitzea helburu duten pertsonaiak agertzen dira istorioan eta amaierara arte ezin daiteke jakin nor den benetako idazlea, hasieran nahiko garbi ikusten da krimenaren erruduna baina, bat-batean, azken kapituluetan, ezustekoz argitzen du benetako hiltzailea, irakurlea ahozabalik utziko duena.

Irakurketa errazagoa egiteko makina bat elkarrizketa ageri dira eleberrian zehar, hauek kontaketa laguntzen dute astunegia bihurtu ez dadin. Deskribapenek ere sekulako laguntza ematen duten liburuko pertsonaiak hobeto ezagutzen, Fernando Morillok hainbat tarte ematen dituelako honetan. Adibidez:

...biratzean, neska ilehori bat ikusi zuen beherantz, telefonoz hitz egiten. Gona bakero urdina, ile luzea, bota kanperero marroi argiak eta jertse beix oso zabal bat. Ertzetik, begi berdexka distiratsiak ikusi zizkion. Polita zirudien, azal zurbilegia bere gusturako.
(137)

Pertsonaiak krimena argitzeko ahaleginetan dabiltzala hainbat gorabehera sortzen dira haien artean, eztabaidak batetik, maitasuna bestetik. Bada, horregatik du liburuak duen titulua. Azken finean gorabehera horiek funtsezkoak dira kontakizunean, ez dadin astunegi egin.

Batetik, idazleak oso ondo jakin du gertaera horiek azaltzen, bere filosofo puntutik hainbeste gogoeta egiteko gai atera daitezke, baita ikasi ere. Nabarmena da gauza batzuk kontatzeko filosofiaz baliatzen dela, eta horrek irakurlea istorioan barneratzen du.

Bestetik, azalpen tekniko asko erabiltzen ditu lurraren inguruan gertatzen diren zientziak azaltzeko, oso interesgarriak direnak batzuetan luzeegiak izan arren. Horra adibide bat:

Lurra sagar handi bat zen, pentsatu zuen. Sagarraren azal fina, litosfera:100 km inguruko harria. Litosferaren azpian, sagarraren mamia eta zukua, magma erdijariakorra zen: usturiko arroka, 5.000 km beherantz! Hamarretik bederatzi baino askoz gehiago zuen likido. Horregatik, plaka tektonikoak borrokan hasten ziren bakoitzean, magma beroa arroka solidoak baino arinagoa denez, hortxe zihoan lurraren zukua gora, ondo josi gabeko zirrikituetatik. Magmaren gasek irekiunetxea topatu orduko, eztanda!

Metaforaz jositako nobela bat da Morilloren lan hau eta honek narrazioa mamitsuagoa bihurtzen du. Azken finean, oso istorio mamitsua da, denetarik du haren barruan. Intrigaz beteta dago baina badu bere zati pasionala ere, liburuaren 205 orrialdeak edukiz bete-beterik uzten dituelarik, nobela aberatsa bihurtuz.

Bibliografia eta webgrafia

Pasio krimena, Fernando Morillo. Gaumin.

Elhuyar Hiztegia, Askoren artean. Elhuyar.

- http://eu.wikipedia.org/wiki/Fernando_Morillo
- <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/fernando-morillo-grande>
- http://www.fernandomorillo.eu/Liburu_Pasio_krimena.html
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Pasio_krimena
- <http://atalak.eus/index.html>